i k a s t o l a k o   a l d i z k a r i a

kikuke

artxandape ikastola

Anselma de Salces, 1 bis
48007 BILBAO
Tel.: 94 413 24 20
Fax: 94 413 24 21
e-mail: ikastola@artxandape.net
www.artxandape.net

27. zenbakia

2022ko ekaina



## Artxandape Ikastola, «Bilbao Balioen Hiria Sariak» ekimenaren laugarren edizioko saridun

*Artxandape Ikastolako «Ohar Gaitezen» programa saritu du Epaimahaiak. Erantzukidetasuna sustatzea bilatzen du, emakumeek eta gizonek zaintzaren ardura modu ekitatiboan parteka dezaten.*

Saritutako ekimen bat Artxandape Ikastolako Ohar gaitezen programa da: genero-berdintasunetik abiatuta kontziliazio eta erantzukidetasunerantz. Urtetotan ikasleek zuzendutako Eguzkimoreak talde feministak prestakuntza-saioak eskaini ditu, genero-berdintasunaren alorreko aditu baten eskutik, gizonen eta emakumeen artean dauden berdintasun ezak identifikatu eta ikusarazteko beharrezko gaitasunak garatzeko.

Prestakuntza horrek talde eragile bihurtzen ditu, bai eskuratutako ezagutzak hezkuntzako gainerako eragileei helarazteko, bai gainerako ikasleak informatu eta sentsibilizatzeko.

Epaimahaiak nabarmendu du proiektu horrek genero-berdintasunaren balioarekin duen «konpromiso sendoa».

## Artxandape Ikastola, premiada en la cuarta edición del certamen “Bilbao Balioen Hiria Sariak”

*“Ohar Gaitezen” de la ikastola Artxandape ha sido uno de los tres programas premiados por el Jurado. Pretende fomentar la corresponsabilidad, para que mujeres y hombres compartan equitativamente las obligaciones y cuidados.*

La ikastola Artxandape ha sido premiada por su iniciativa Ohar Gaitezen: hacia la Conciliación y corresponsabilidad desde la igualdad de género. Los últimos años, el grupo feminista Eguzkimoreak, liderado por el alumnado del centro, ha organizado sesiones formativas impartidas por una experta en igualdad de género para desarrollar las competencias necesarias que les lleve a identificar y visualizar las desigualdades entre hombres y mujeres que actualmente siguen vigentes.

Esta preparación les convierte en el grupo motor para extender los conocimientos adquiridos al resto de agentes educativos, para informar y sensibilizar al resto del alumnado.

El jurado ha apreciado el “firme compromiso” con el valor de la Igualdad de Género de este proyecto.

Iturria: Bilbao.eus (moldatua) // Fuente: bilbao.eus (adaptado)

## Artxandape Ikastolako obra martxan da

*Segurtasuna, antolamendua eta komunikazioa hobetzeaz gain; hezkuntza espazio berritzaileak eraikitzeko aukera eskainiko dute lan hauek, Ikastolak irabaziko dituen 600 metro karratu berrietan.*

Azken urteetako ahaleginaren ostean, Artxandape Ikastolako obrak udaberri honetan hasi dira. Apirilaren amaiera eta irailaren hasiera bitartean luzatuko diren lanok onura ugari ekarriko dizkiote Ikastolari.

Batetik, irakaskuntza-etapetara zuzendutako hiru solairuetan (HH-LH-DBH) zein jolastoki funtzioa bete ohi duen goiko kirol-kantxan 2 hustuketa bide (bietan igogailu eta eskailerekin) izatea ahalbidetuko dute lanek. Edozein larrialdiren aurrean honek dakarren segurtasun-mailaren hobekuntza nabarmenarekin. Lehentasun handiko gaia zen hau, batez ere ekitaldi berezietan ikasle kopuru handia bildu ohi dituen jolastokia tartean izanda. Gainera, ikasleen eguneroko joan-etorriak ere asko erraztuko ditu bi bide izateak, batik bat jolas-ordu denboretan.

Bestetik, 600 metro karratu berri irabaziko ditu Ikastolak, batik bat frontoi zaharraren gainean eraikitzen ari diren solairu berriarekin. Honi esker, guneak berrantolatzeko aukera izango da: Sarrerako solairu berrian (gaur egungo frontoiaren gainean) zerbitzuak bilduz: zuzendaritza, administrazioa, idazkaritza eta gaur egungoaren edukiera bikoiztuko duen jantoki berria, zerbitzuaren erosotasun zein kalitatea handituz. Hauek guztiak, Parrokiako Aretoaren parez pare geratuko dira, honetara ere sarbide zuzena sortuz. Eta hauen pean legokeen frontoi zaharra gimnasio zein jolas-leku berri bihurtuko da. Gune hauek, orain arte bezala, UPA (Artxandape Pastoral Unitatea) osatzen duten erakunde eta eragileen erabilera partekatua izaten jarraituko

▶

dute; guztion elkarlanarekin denok irabaziz.
Lehen solairuan (gaur egungo behe-solairua), haur hezkuntza osoa (2 urtetik 5 urtera arte) berregingo da, azken beharrizanetara egokitutako hezkuntza-espazio berriekin, bai ikasgelak, bai arte- eta psikomotrizitate-gune berriak zein jolastekoa.
Solairu bat gorago, LH osoa kokatzeko aukera izango da, 6 urtetik 12 urtera.
Hirugarrenean, berriz, DBHko ikasgelak 12 urtetik 16ra.
Goiko bietan, kirol-kantxa edo jolastokia eta gimnasioa mantenduko dira.

Hemen modu grafikoagoan, berritze-lanekin Ikastolak izango dituen zazpi solairuen egituraketa:

| | |
|---|---|
| 5 | Gimnasioa. |
| 4 | Kirol kantxa – jolastokia. |
| 3 | Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. |
| 2 | Lehen Hezkuntza. |
| 1 | Haur Hezkuntza.<br>HHko sarrera (gaur egungo ate nagusia). |
| 0 | Zerbitzuak: zuzendaritza, administrazioa, idazkaritza, bilera-gelak, jantokia, aretoa.<br>Sarrera nagusia (San Agustin Estratatik) |
| -1 | Gimnasio berria edo sotoa. |

Azkenik, zerbitzu eta hezkuntza guneak berrantolatzeaz eta hobetzeaz gain, hauen arteko komunikazioa ere erraztuko da, solairu guztiak eskailera zein igogailu bidez lotuz.

# La obra de Artxandape está ya en marcha

*Además de mejorar la seguridad, la organización y la comunicación; estos trabajos permitirán construir espacios innovadores en los más de 600 metros cuadrados que ganará la Ikastola.*

Tras los esfuerzos de los últimos años, las obras de remodelación de Artxandape Ikastola han arrancado esta primavera. Los trabajos que se llevarán a cabo entre finales de abril y principios de septiembre traerán grandes mejoras a la Ikastola.

Por un lado, permitira que haya dos vías de evacuación (ambas con ascensor) en los tres pisos destinados a la enseñanza (EI-EP-ESO) y en la pista deportiva que realiza la función de patio de recreo. Esto supondrá un incremento del nivel de seguridad ante cualquier emergencia. Se trataba de un tema prioritario en la hoja de ruta de la Ikastola, especialmente por tratarse de un espacio que congrega a un gran número de personas en celebraciones y eventos especiales. Además, el disponer de dos vías facilitará significativamente los desplazamientos en el día  a día, especialmente en tiempos de recreo.

Por otro lado, la Ikastola ganará más de 600 metros cuadrados, sobre todo, gracias a la nueva planta que se está construyendo sobre el antiguo frontón. Gracias a ello, será posible reorganizar las zonas: congregando los servicios (dirección, administración, secretaría y el nuevo comedor el cual duplicará la capacidad del actual, mejorando la comodidad y calidad del servicio). Todos ellos estarán situados junto al Salón Parroquial, creando al mismo un nuevo acceso directo desde la Ikastola. Y el antiguo frontón situado bajo estos se convertirá en nuevo gimnasio y zona de recreo. Todos estos espacios, continuarán teniendo un uso compartido entre las organizaciones y agentes pertenecientes a la UPA (Unidad Pastoral Artxandape); saliendo todos/




as beneficiados/as, gracias al trabajo conjunto de todas las partes implicadas. Se renovará por completo el primer piso (actual planta baja) Educación Infantil (2-5 años) con espacios educativos renovados e innovadores que respondan a las actuales necesidades, tanto las aulas como las zonas de arte, juego y psicomotricidad.
Una planta más arriba podrá ubicarse EP al completo, desde los 6

hasta los 12 años.
En la tercera, en cambio, estarán las aulas de ESO, de 12 hasta 16 años. En las dos plantas superiores, se seguirán manteniendo la pista deportiva o patio y el gimnasio.
He aquí de manera gráfica, la distribución de los siete pisos de los que dispondrá la Ikastola:

| | |
|---|---|
| 5 | Gimnasio. |
| 4 | Pista deportiva - Patio. |
| 3 | Educación Secundaria Obligatoria. |
| 2 | Educación Primaria. |
| 1 | Educación Infantil.<br>Entrada EI-HH (actual puerta principal). |
| 0 | Servicios: dirección, administración, secretaría, salas de reuniones, comedor, salón.<br>Nueva entrada principal (desde Estrada San Agustín). |
| -1 | Nuevo gimnasio o sótano. |

Finalmente, aparte de reorganizar y mejorar los espacios de servicios y los educativos, facilitará la comunicación, conectando todos los pisos mediante escaleras y ascensor.

# Ikasleen ikaskuntza-prozesuaren onurarako, beste ikasturte batez goitik beherako ardatz komunak dituzten proiektuak sendotuz doaz Artxandapen



Artxandape ikastolako etapa guztietan proiektuen bidez lan egiten jarraitu dugu. Gizarte Zientziak eta Natur Zientziak ardatz dituzten proiektu interdiziplinarren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, urte hauetan zehar ikusi ditugun onurak anitzak izan baitira.

Gizarte eta Natur Zientzietako edukietan oinarrituta, Hizkuntzetako, Arteko edo Gorputz Hezkuntzako eduki eta gaitasunak garatzen dituzten proiektuak sortzen darraigu. Era honetan, ikasleek ikasgai desberdinen jakintzen arteko lotura ikusi dute eta haien errealitate hurbilera bideratuta daudenez, ikasitakoaren praktikotasun eta erabilpenaz kontziente izan dira.

Proiektuetan ikasitako guztia "Ikasjai"-en bidez hezkuntza-komunitate guztiarekin partekatu ohi dugu eta ikasturte honetan ere, Covid egoerari egokitu behar izan arren, jai berezi hauek ospatzen jarraitu dugu. Gainera, aurten familiekin ohiko "Ikasjai"-ez gain, "Barneko ikasjaiak" ere antolatu ditugu, etapa desberdinetako ikasleen artean ikasitakoa partekatzeko eta ikasleen arteko harremanak sendotzeko.

Guk argi daukagu, ikasleen garapenerako eta haien ikasketa-prozesurako onuragarri eta esanguratsuak diren proiektuak eta Ikasjaiak egiten jarraituko dugu.

# Para beneficio del proceso de aprendizaje del alumnado, un curso más los proyectos interdisciplinares con ejes verticales comunes se afianzan en Artxandape



Seguimos trabajando mediante proyectos en todas las etapas educativas de Artxandape ikastola. Continuamos apostando por los proyecto interdisciplinares que tienen como eje las ciencias naturales y las sociales, ya que, los beneficios apreciados en los últimos años son múltiples.

Continuamos diseñando proyectos que tienen como base contenidos de ciencias naturales y sociales, y además, trabajan tanto contenidos como competencias de los idiomas, y la educación artística y/o física. De este modo, el alumnado visibiliza la relación entre conocimientos de diferentes materias, y al estar enfocados a una realidad cercana a ellos/as, son conscientes de la practicidad de lo aprendido.

Solemos compartir con toda la Comunidad Educativa mediante las "Ikasjaias" todo lo aprendido, y este curso, adaptándonos a la situación sanitaria, hemos continuado celebrando estas fiestas tan especiales. Además, este curso, aparte de las habituales "Ikasjaias" con familias, hemos realizado otras "Ikasjaias internas", para compartir lo aprendido y fortalecer las relaciones entre alumnado de distintas etapas/niveles.

Nosotros/as lo tenemos claro, seguiremos realizando proyectos e "Ikasjaias" que sean tan beneficiosas y tan significativas para el desarrollo y el aprendizaje del alumnado.

# EA2030 Ikasturteko hainbat ekintza

## EA2030 diversas acciones para el curso académico

Eskola Jasangarria Ziurtagiria
Certificado de Escuela Sostenible



### 1 Eskola Jasangarria ziurtagiria/Certificado Escuela Sostenible

Eskerrik asko hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztioi Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko egin dugun lanagatik! Artxandapek 2018an lortutako Eskola Jasangarria ziurtagiria berriztu du.

¡Gracias a toda la comunidad educativa por la gran labor que hacemos en pro de los Objetivos de Desarrollo Sostenible!
Hemos renovado el certificado que acredita a Artxandape Ikastola como Escuela Sostenible.

### 2 Eskolarteko foroa/Foro interescolar

LH 5. mailako bi ikaslek Bilboko beste ikastetxe batzuetako ikasleekin batera hainbat dinamika burutu ondoren haien konpromisoa finkatu eta udalari proposatzeko iradokizunak zehaztu dituzte.

Dos alumnos/as de 5º de primaria han asistido al foro interescolar en el que junto al alumnado de diversos centros de Bilbao han concretado su compromiso y han realizado propuestas para el ayuntamiento con el objetivo de conseguir una ciudad más sostenible.



### 3 XII. Euskal Confint. Iraes ikasleen konferentzia

DBHko ikasleen ordezkariak Madariaga dorretxean izan den konferentzian parte hartu dute gazteen artean jasangarritasunaren kultura zabaltzeko helburuarekin.

Varios/as alumnos/as de ESO han participado en la conferencia celebrada en la Torre Madariaga con el fin de fortalecer y extender entre los jóvenes la importancia de actitudes sostenibles.



### 4 Hezkuntzaren aldeko mundu kanpaina(Unesco etxea) / Campaña mundial por la educación en Euskadi

LH 4. mailako ikasleak Hezkuntzaren aldeko ekintza desberdinak burutu zituzten Indautxu plazan.

El alumnado de 4º de EP ha realizado varios talleres para divulgar la necesidad de la Educación.



### 5 Ostadar zirkulua

EA 2030 proiektuaren jarraipena egiteko Ostadar Zirkulua (ikasleak, irakasleak, familiak, langileak eta zuzendaritza taldea) hiruhilabetean behin elkartu da. Balorazioak egin, proposamenak aztertu eta erabakiak elkarrekin hartzeko.

"Ostadar Zirkulua" (estudiantes, profesores/as, trabajadores no docentes y equipo directivo) se han reunido cada trimestre para realizar el seguimiento de los proyectos de la AE 2030.



### 6 Kutsadura akustikoaren inguruko diagnostikoa/Diagnóstico sobre la contaminación acústica

Ikastolako leku desberdinetan zarata neurketak egin dira eta ikasleek dezibelio gehiegi dauden tokietan irtenbidea bilatzeko proposamenak bideratu dituzte.

Se han realizado varias mediciones de decibelios en diferentes zonas de la Ikastola para detectar los puntos más ruidosos e intentar buscar soluciones.



7 **Artigasera bisita/ Visita Artigas**

DBH 2. mailako ikasleek zaborraren kudeaketa ezagutu ahal izan dute Artigas Ingurumen Hezkuntzarako zentroan.

El alumnado de 2º E.S.O ha conocido de primera mano cómo se gestionan los residuos en el centro de interpretación de Artigas.



8 **Gune berdeetara irteerak**

# Artxandape Ikastolako ikasleek bultzada polita eman diote, «200 manta Aita Marirentzat» ekimenari



*Artxandape Ikastolak Aita Mari itsas salbamendu ontziarekin harreman estua izan du migrazio proiektu ezberdinei lotuta. Aurtengo kolaborazioa biribiltzeko, Artxandape Ikastolak "200 manta Aita Marirentzat" ekimenean parte hartu du 70 manta eta 150 barrita energetiko inguru eskainiz.*

Gaur eguneko munduak duen erronka handienetariko bat migrazioena izanik, Aita Mari bezalako ontzien lana miresteko da. Hauek, migratzaileak jasotzen dituztenean, bakoitzari haientzako izango den manta bana ematen diete; ondorioz, Aita Mariren manta premia etengabea da.

Hori dela eta, Artxandape Ikastolak "200 manta Aita Marirentzat" kanpainian parte hartzeko erabakia hartu du. Honela, DBH 3. mailako ikasleek, manta eta barriten bilketa benefikorako espazio txukun eta erakargarri bat antolatu eta lanari ekin zioten. Martxoaren 10 eta 11n DBHko ikasleak Ikastolako sarreran egon ziren, haiek prestatu eta apaindutako txokoan manta eta barrita energetikoak biltzen.

"Oso ondo sentitu gara proiektu honetan lan egiten. Guretzat hain hurbilekoa ez den eta beste pertsona batzuentzat funtsezkoa den arazo orokor bati bultzadatxo bat eman diogu ahal izan dugun neurrian".

Artxandape Ikastolako familia ezberdinen, ikasleen eta hainbat irakasleren eskuzabaltasunari esker, egun horietan, 70 manta eta 150 barrita energetiko inguru bildu ziren eta eskaini ahal izan zitzaizkion horren zentzu eta helburu polita duen ekimen bati. Zorionak eta eskerrik asko guztiei.

# El alumnado de Artxandape Ikastola da un gran impulso a la iniciativa “200 manta Aita Marirentzat”

*Artxandape Ikastola ha mantenido una estrecha relación con el barco de salvamento marítimo Aita Mari vinculado a los diferentes proyectos migratorios. Para redondear la colaboración de este año, la Ikastola Artxandape ha participado en la iniciativa “200 manta Aita Marirentzat” (200 mantas para Aita Mari) con 70 mantas y alrededor de 150 barritas energéticas.*




Siendo uno de los grandes retos del mundo actual el de las migraciones, es de admirar el trabajo que realizan embarcaciones como Aita Mari. Estos, cuando reciben a los y las migrantes, dan a cada una de ellas una manta; en consecuencia, la necesidad de mantas de Aita Mari es constante.

Por ello, Artxandape Ikastola ha decidido participar en la campaña “200 mantas para el Padre Mari”. Así, los alumnos de 3º de la ESO organizaron un espacio ordenado y atractivo para la recogida benéfica de mantas y barritas. Los días 10 y 11 de marzo los alumnos de la ESO estuvieron a la entrada de la Ikastola recogiendo mantas y barritas energéticas en un rincón preparado y decorado por ellos.

“Nos hemos sentido muy bien trabajando en este proyecto. Le hemos dado un empujón en la medida de nuestras posibilidades a un problema que no es tan cercano para nosotros y nosotras pero que es crucial para muchas personas”.

Gracias a la generosidad de las diferentes familias, alumnos, alumnas y profesores de Artxandape Ikastola, durante estos días, se reunieron alrededor de 70 mantas y 150 barritas energéticas, que se ofrecieron a una iniciativa que tiene un objetivo bonito y con sentido. Zorionak eta eskerrik asko guztiei.

## Maiatzak 17

LGTBIQ+ fobiaren kontrako nazioarteko egunean ekintza bat burutu genuen ikastola guztian. Honen helburua ikasleekin hausnarketa bat egitea eta hauek sentsibilizatzea izan zen. Horretarako



maila bakoitzari egokitutako elkarrizketak bultzau ziren. Amaitzeko, ikastolako logoa, egun horretara moldatuta, margoztu zen lelo bateri lotuz “Naizena naizela onartua”. Honekin ikastola honetan denontzat leku bat dagoela adiraziz. Ikasleen parte hartzea aktiboa izan zen eta bakoitzak bere ikuspuntua askatasunez adierazteko aukera izan zuen. Argi dago pixkanaka pixkanaka horrelako ekintzak eginez gizartea aldatzeko bidean gaudela.

## 17 de mayo

En el día internacional contra la fobia LGTBIQ+ realizamos una actividad en toda la ikastola. El objetivo fue hacer una reflexión y sensibilizar al alumnado. Para ello se habló acerca del tema, adecuándolo a cada nivel escolar. Para finalizar, se coloreó el logo de la ikastola, adaptado a ese día, con el siguiente lema “Naizena naizela onartua”, haciendo ver que en nuestra ikastola hay lugar para todos/as. El alumnado participó activamente y tuvo la oportunidad de expresar libremente su punto de vista. Está claro que poco a poco, con este tipo de actividades estamos en el camino de una nueva sociedad.




# 26. edizioa izan du aurten gure Ipuin Lehiaketak

26. edizioa izan du aurten gure Ipuin Lehiaketa kuttunak, sari-banaketa ekitaldia hilaren 13an izan zen. Hona hemen idazleen zerrenda eta saritutako lanokin osatutako liburuxka:

Liburuxka ikusi eta deskargatzeko esteka

# Nuestra Ipuin Lehiaketa ha cumplido su 26ª edición

Nuestra querida Ipuin Lehiaketa cumple su 26ª edición. El acto de reconocimiento a nuestros escritores y escritoras se llevó a cabo el 13 de este mes. Aquí sus nombres y el recopilatorio que recoge los trabajos seleccionados:

Enlace para ver y descargar el recopilatorio de cuentos

| | IPUINA | IDAZLEA |
|---|---|---|
| LH 2A | Sorgina eta mutila | Nile Etxeandia Solera |
| LH 2B | Katua eta sagutxoa: ezinezko adiskidetasuna? | Olivia Nalda Vink |
| LH 3A | Baserriko arazoa | Alaia Abaunza Grygielska |
| LH 3B | Noaren mundu magikoa | Carla Pizarro Miñambres |
| LH 4A | Abentura uhartean | Alazne Torres Tejo |
| LH 4B | Itsasoaren sekretuak | Alazne Ruiz Barrasa |
| LH 5A | Irlaren abentura | Eneko Gutiérrez Rosé |
| LH 5B | Animalien bila | Irati Fernández Victorino |
| LH 6A | Alaznek futbolera jolastu nahi du | Unai Martínez Cortez |
| LH 6B | Poloniako salbatzailea | Aner Anta Rámila |
| DBH 1A | Kihararen bigarren bizitza | Leire Villacián Crespo |
| DBH 1B | Savetheseas | Ángela Cano Alquegui |
| DBH 2A | Mundua gizakien menpe | Zuriñe Bergaz Garay |
| DBH 2B | Labirintoan barna | Malen De Luis Aguirregoitia |
| DBH 3A | Ikusezinak | Enaitz Vázquez Barrio |
| DBH 3B | Bakardadea elkarbanatu | Amaya Salgado Huidobro |
| DBH 4A | Biktima baten hitzak | Maialen Lozano Maeztu |
| DBH 4B | Bi istorio desberdin | Martin García Villanueva |

# Bilboko Udalak antolatzen duen Rafael Mikoleta Ipuin Lehiaketak 8 eta 16 urte arteko ikasleek euskaraz idatzitako 21 ipuin saritu ditu, horietako 3 Artxandape Ikastolako ikasleenak



# El Certamen Rafael Mikoleta organizado por el Ayuntamiento de Bilbao premia 21 relatos escritos en euskara por escolares de entre 8 y 16 años, 3 de ellos de alumnado de Artxandape Ikastola

*970 lan aurkeztu dira XXXIV. edizioan. Epaimahaiak, irabazleak aukeratzerakoan, gaiak (laguntasuna, enpatia, errespetua, elkartasuna eta are gertuko norbaiten heriotza) azaltzeko modua eta originaltasuna izan ditu kontuan.*

Juan Mari Aburto Bilboko alkateak banatu ditu Rafael Mikoleta sariak, hau da, Bilboko Udalak antolatzen duen euskarazko ipuinen eskola-lehiaketako sariak. Hogeita hamalaugarren edizio honetan, udalak 8 eta 16 urte arteko ikasleen 21 ipuin saritu ditu. Haietako 3 gure ikasle Cynthia Rioja (C kategoria), Kattalin Begoña (D kategoria) eta Naia Reguilón (D kategoria).

Euskarazko ipuinen lehiaketa honen izena Rafael Mikoleta da, lehenbiziko euskal gramatika osatu zuen pertsonaren ohoreetan. Sariketa 33 urtez egin da etengabe, 1988az geroztik. Lehiaketaren xedea euskarazko irakurketa eta idazketa ikastetxeetako ikasleen artean sustatzea da. Horrela, gazteak euskara eta euskarazko literatura modu original eta dibertigarrian lantzera eta bultzatzera animatzen dira.

*El jurado de esta XXXIV edición ha elegido los cuentos ganadores entre 970 trabajos presentados. El jurado ha elegido los relatos por su originalidad y por la manera de expresar temáticas tan diferentes como la amistad, la empatía, el respeto, la solidaridad o incluso algunas tan profundas como la pérdida de un ser querido.*

El Alcalde de Bilbao, Juan Mari Aburto, ha hecho entrega de los premios Rafael Mikoleta, el concurso escolar de cuentos en euskera organizado por el Ayuntamiento de Bilbao. En esta trigésimo cuarta edición, el Consistorio ha destacado 21 relatos de escolares de entre 8 y 16 años, entre ellos los trabajos de nuestras alumnas Cynthia Rioja (en la categoría C), Kattalin Begoña (en la categoría D) y Naia Reguilón (en la categoría D).

Este certamen de cuentos en euskera, lleva el nombre de Rafael Mikoleta en honor al autor de la primera gramática vasca y se lleva celebrando ininterrumpidamente 33 años, desde 1988. Este concurso tiene el objetivo de fomentar la lectura y escritura en euskera entre los y las escolares. De esta manera, se anima a la juventud de la Villa a cultivar e impulsar el euskera y la literatura vasca de una manera original y divertida.

Iturria: Bilbao.eus (moldatua) // Fuente: bilbao.eus (adaptado)

# Bueltan ditugu gure betiko Barria eta Zuhatzako udalekuak, inoiz baino indartsuago



Bi urte udalekuak izan gabe eta bueltan ditugu. Aspaldi hasi zen Artxandape ikastolak, Barria eta Zuhatzako udalekuak antolatzen. Azkenean, aurten, ikasleen ia %80a animatu da abentura hau bizitzera, inoiz baino ume kopuru handiagoarekin. Barriara ekainaren 22tik 25era LH 1., 2. eta 3. mailetako ikasleak joan ziren. Zuhatzara, berriz, ekainaren 22tik 27ra LH 4., 5. eta 6. mailetako ikasleak.

Udaleku hauen helburua, besteak beste, euskeraren erabilera sustatzea, ikasle harremanak hobetzea, autonomoak izaten ikastea, beldurrak gainditzea… dira. Horretarako, ekintza ezberdinak egingo ditugu: Ibilaldiak, eskulanak, jolasak, igerilekua…



# Vuelven nuestros tradicionales udalekus de Barria y Zuhatza, más multitudinarios que nunca

Después de dos años sin poder ofrecerse, vuelven los campamentos de verano. Artxandape Ikastola, organiza cada final de curso los tradicionales campamentos a Barria y Zuhatza. Por fin, este año, con el mayor número de niños nunca antes alcanzado, casi un 80% se animó a vivir esta aventura. Del 22 al 25 de junio, el alumnado de 1º, 2º y 3º de primaria, fue a Barria. Por otro lado, del 22 al 27 de junio, 4º, 5º y 6º de Primaria estuvieron en Zuhatza.

El objetivo de estos campamentos, es fomentar el uso del euskera, mejorar las relaciones entre los alumnos, aprender a ser autónomos, superar miedos… etc. Para ello, realizaremos diferentes actividades, como paseos, manualidades, juegos, piscina…

ARGAZKIAK/FOTOS BARRIA 2022

ARGAZKIAK/FOTOS ZUHATZA 2022





# Nola gozatu genuen Artxankilometroaz eta Korrikaz Uribarrin!

*Euskararekiko konpromisoan batzen gaituzten ekimenak argi utzi zuen Uribarri ere euskararen alde badagoela!*

Apirilaren 6an KORRIKAren 22. edizioa Bilbotik igaro zitzaigun, bertan andereño Anek, Euskara Batzordeko Idoiak eta Aitzol DBHko ikasleak eraman zuten lekukoa. Giro aparta eta une hunkigarriak bizi izan genituen.

Honetaz gain, Auzoko Euskara Batzordearekin batera ekimen ugari eraman ziren aurrera, hauen artean auzoko gurutzegrama erraldoia, ekintza parte-hartzaile handi gisa. Guzti hauek girotzea, denok bat egitea eta euskararen garrantziaz hausnartzea dute helburu. Izan ere, jakin badakigu oraindik lan handia dugula, gaur egun euskararen osasuna ez baita onena. Eta beronen alde egiteko modu ugari badaude, guztiok zer esana daukagularik, gainera! Beraz, bakoitzak ahal duen heinean, aurtengo leloak zioen moduan: HITZ EKIN, nonahi eta noiznahi!




## Guztion lanarekin eta erkarpenekin hezkuntza komunitateak bizirik eta sendo darrai

Lerro hauen bidez familiek Ikastolaren egunerokoan duzuen parte hartzea balioan jarri eta eskertu nahi dugu.
Ikasleei hezkuntza aukera eta esperientziarik onena emateko helburuaz, asko eta asko baitira, guztion ahaleginaz zein interesaz aurrera egiten duten talde, eragile eta ekimenak:

## Con el trabajo y las aportaciones de todas y todos la comunidad educativa continúa viva y fuerte

Mediante estas líneas nos gustaría poner en valor y agradecer la participación que tenéis las familias en el día a día de la Ikastola. Ya que son muchos los agentes, grupos e iniciativas que salen adelante gracias al esfuerzo e interés de muchos/as, siempre con el objetivo de brindar las mejores oportunidades y experiencias educativas al alumnado:

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Guraso Elkartea** | AMPA | **Eskola Kontseilua** | Consejo Escolar |
| **Euskara Batzordea** | Comisión Euskara | **Familia Eskolak** | Escuela de familias |
| **Ekonomia Batzordea** | Comisión Económica | **Ikasgelako Ordezkariak** | Delegados/as de aula |
| **Komunikazio Batzordea** | Comisión Comunicación | **Eskolaz K. Kultur Ekintzak** | A. Culturales Extraescolares |
| **Irakurketa Ekimenak*** | Iniciativas Lectoras* | **Eskolaz K. Kirol Ekintzak** | A. Deportivas Extraescolares |
| **Galdutako gauzen kud.** | Gestión objetos perdidos | **Ikasturte Amaierako Jaialdia** | Fiesta de Fin de Curso |
| **Dohaintza Batzordeak** | Comisiones de Donación | **Kirol Olinpiada** | Olimpiada |

***Libu-joko txoko, Liburu Solidarioa, Ikasgelako Liburutegiak, Liburu Dohaintza…**
*Libu-joko txoko, Libro Solidario, Bibliotecas de Aula, Donación de Libros…

Horregatik, guzti honek duen garrantzia erdigunean jarriz, hurrengo ikastureetarako hauen antolaketan zein kudeaketan parte hartzera animatu nahi zaituztegu.
Informazio gehiago:
**gurasoelkartea@artxandape.net**

Es por ello, que teniendo en cuenta la importancia que tiene este aspecto, queremos animaros a participar durante los siguientes cursos en la organización y gestión de las mismas.
Para más información:
**gurasoelkartea@artxandape.net**

# Web orrialdea berritu dugu ikasturte honetan
## Hemos renovado la página web durante este curso

Orrialde dinamikoagoa eta itxuraz erakargarriagoa eskaintzea izan dugu aldaketa honen xede, baita gailu mugikorretara hobeto egokitzea ere.

Aurpegi freskatze honetaz gain, eduki menuak berregituratu eta erraztu ditugu, informazioa eskuragarriago egoteko. Gainera, familien eskaera aintzat harturik, argazki-albumak eremu pribatura eraman ditugu. Alexia komunikazio-plataformaren erabiltzea baliatuz sarbidea duen gune pribatuan dokumentazioa eta inprimakiak ere aurki ditzakezue.

Pixkanaka-pixkanaka hobekuntza gehiago txertatzen joango gara, bitartean, ekarpenik izanez gero, helarazi iezazkiguzue, mesedez:
**ikastola@artxandape.net**










Los objetivos de dicho cambio han sido ofrecer una página más dinámica y más atractiva, además de adaptarnos mejor a las versiones para dispositivos móviles.

Aparte de refrescar la cara de nuestra web, hemos reestructurado y facilitado los menús, para que la información esté más accesible. Teniendo en cuenta la solicitud de las familias, también hemos alojado los álbumes de fotos en la zona privada. En dicho espacio privado, al cual podemos acceder gracias al usuario de la plataforma de comunicación Alexia, también encontraréis impresos y documentación.

Iremos implementando más mejorar paulatinamente, mientras tanto, en caso de querer realizar alguna aportación, enviádnosla, por favor:
**ikastola@artxandape.net**

# Murrieta Baserrira bisita



Martxoaren 18rako euria espero bazen ere, Artxandapeko 2 urteko haurrak ilusioz eta emozioz beterik joan ginen Murrieta Baserrira. Aurreko ikasturtean pandemiak ez zigun aukerarik eman horrelako jarduerez gozatzeko, baina aurten, uste dugu garaia dela apurka-apurka betiko normaltasunera itzultzeko.

Murrieta baserria ezagutu aurretik, behien inguruko hainbat jarduera, abesti eta ipuin egin genituen gelan, gero Murrietan umeek gehiago parte hartzeko eta hobeto ikasteko.

Gure lehenengo irteera izanda ere, zintzo-zintzo sartu ziren autobusean Galdamesera joateko, baserria eta behiak ezagutzeko, eta, batez ere, esperientzia hori lagunekin partekatzeko. Dena izan da berria gure txikitxuentzat!

Ailegatu ginenean dena ikusteko eta ezagutzeko irrikitan geunden, baserritarrak gure zain zeuden eta jarraian egun horretako ekintzak hasi genituen. Taldeka pasatu ginen txoko guztietatik; lehenik, txahal txikiak ezagutu genituen, ze politak! .Gure txikitxurik ausartenek lastoa eman zieten jaten. Behi handiak ere ikusi genituen eta jetzi genituen. Hori zirrara! Gure lagun baserritarrak, ipuin bat kontatu eta azalpen batzuk eman ondoren, abereen jatekoak hurbildu zizkigun, begiratu, ukitu eta usaintzeko.

Horrez gain, oiloak eta txitoak ere ikusi genituen, eta gustukoen duten jatekoa eman genien: pentsua. Goiza bukatzeko, baserritarrak esne beroa eta bizkotxoa eman zizkigun dastatzeko. Zer goxoa! Benetan esperientzia polita! Primeran pasatu genuen!. Hona hemen argazki batzuk.

*2 urtekoen tutoreak.*



# Visita al caserío Murrieta

A pesar de que pronosticaban lluvia para el 18 de marzo, los niños y las niñas de 2 años nos fuimos con mucha ilusión y emoción a visitar el caserío Murrieta. El curso anterior la pandemia no nos dejó disfrutar de ese tipo de actividades, pero este año es hora de volver poco a poco a la normalidad.

Antes de conocer el caserío realizamos diferentes actividades, cuentos y canciones sobre las vacas en el aula, para que, una vez allí, los conocimientos y participación de los niños fuese mayor.

Aunque era nuestra primera salida, se montaron en el autobús muy formales camino de Galdames con intención de conocer el caserío, las vacas, y, sobre todo, para compartir esta experiencia con sus compañeros. ¡Todo es novedad para nuestros pequeños y pequeñas!

Cuando llegamos estábamos deseando ver y conocer todo, los granjeros nos estaban esperando, y enseguida empezamos las actividades de ese día. Fuimos pasando por grupos por los diferentes espacios; primero conocimos a los terneritos. ¡Qué bonitos! Y nuestros pequeños más atrevidos les dieron de comer paja. También vimos vacas grandes y las ordeñamos. ¡Qué emoción! Nuestra amiga granjera, después de contarnos un cuento y darnos algunas explicaciones, nos acercó las diferentes comidas de los animales para poder mirar, oler y tocarlas.

Además, también vimos gallinas y pollitos y les dimos a comer su comida favorita: pienso. Para acabar la mañana, nos dieron leche caliente y bizcocho para probar. ¡Qué rico!

¡Vaya experiencia más bonita, lo hemos pasado muy bien! Aquí os dejamos algunas fotos de la visita.

*Las tutoras de 2 años.*





## Ohitura onak berreskuratuz



Ikasturte honetan, pandemia-egoerari aurre egin eta gero, «ni eta nire familia» proiektua berreskuratu ahal izan dugu 3 urtekoen geletan. Ostiralero, geletara hurbildu dira familiak, aurkeztu egin dira, eta gure testuingurua ezagutu dute. Bai familientzat bai ikasleentzat esperientzia polita izateaz gain, hezkuntza komunitatearentzat ere garrantzi handia dauka erakusten dituzten inplikazioa eta koordinazioa.

Aurten oso ekintza arrakastatsua izan da, nolako parte-hartze handia eta ilusioa izan diren ikusita. Datorren ikasturtera arte!

## Recuperando buenas costumbres

En este curso académico, después de superar la situación de pandemia, en las aulas de 3 años hemos podido recuperar el proyecto «ni eta nire familia». En él cada viernes las familias se han acercado al aula, se han presentado y han conocido nuestro entorno. Tanto para las familias como para los alumnos/as ha sido una experiencia muy bonita y gratificante y para la comunidad educativa es de vital importancia esa coordinación e implicación que han mostrado.

Este curso, ha sido una actividad muy exitosa viendo su participación e ilusión. ¡Hasta el año que viene!



## HH2 Guk brinko, landareak finko proiektua



4 urteko ikasleak hainbat proiektu lantzen ibili dira ikasturte honetan, guztietan gogotsu aritu dira, eta gauza-mordoa ikasi dituzte. Ikastolak «Izaki bizidunak» gaia ardatz moduan landu duenean, Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleak eta Haur Hezkuntzako 2.mailakoak landareen munduan murgildu dira.

Proiektuari hasiera emateko, Ramonen bisita izan genuen. Ramon lorezaina da, eta lanabes pila bat erakutsi zizkigun; bestalde, kalera ateratzeko aukera izan genuen horietako batzuk nola erabiltzen diren ikusteko. Gainera, hazi batzuk oparitu zizkigun, eta, proiektuan aurrera egin ahala, geure ortuan ereiten joan gara. Besteak beste, hainbat landare-mota ezagutu ditugu, euren hazkuntza, gai honekin lotuta dauden beste lanbide batzuk…

Proiektuaren erdian, 2. mailakoen bisita izan genuen, eta haien azalpenei oso adi egon ginenez, gure proiekturako baliagarriak ziren gauza asko ikasi ahal izan genituen. Haien bisitaren ondoren, landareak gehiago ezagutzeko grina piztu zitzaigun, eta hainbat esperimentu abiarazi genituen. Hala ere, egia esateko, guztietan ez genuen lortu espero genituen emaitzak. Baina oso ondo pasatu genuen. Horrela ikasten da!

Gure proiektua bukatu zenean, berriro gonbidatu genituen nagusiak barneko ikasjaia ospatzera, eta oraingoan, gure ezagutzak partekatu ditugu haiekin. Asko disfrutatzen dugu topaketa horietaz, gero eta gusturago sentitzen baikara protagonistak garenean.

Proiektua ixteko, Goreko negutegiak bisitatu genituen. Bertan, nekazarien lana ezagutu genuen. Hainbat barazki ikusi eta

biltzeko aukera izan genuen. Bai zerba goxoak etxera eraman genituenak!!! Negutegietan landatzeko hazitegiak prestatu genituen taldeka. A zer poza ereindako hazien argazkiak hartu eta hazi egin direla ikusitakoan!
Datorren urteko proiektuen zain gaude, ikasteko irrikatan!



Durante el curso escolar, los alumnos de 4 años han trabajado diferentes proyectos. En todos ellos han trabajado con entusiasmo y han aprendido muchas cosas. Cuando la ikastola ha propuesto el tema de «Los seres vivos» como eje central, tanto los alumnos de 2.º de Primaria como los de 2.º de Infantil se han sumergido en el mundo de las plantas.

Para comenzar el proyecto, recibimos la visita de Ramón, un jardinero, quien nos enseñó muchas herramientas, incluso salimos a la calle para verlas en acción. También nos regaló unas semillas, las cuales, a medida que avanzábamos con el proyecto las hemos ido sembrando en nuestro huerto. Entre otras cosas, hemos conocido diferentes plantas, su crecimiento, profesiones relacionadas con el tema…

En mitad del proyecto, vinieron los alumnos de Primaria, y, como estuvimos muy atentos a sus explicaciones, pudimos aprender muchas cosas útiles para nuestro proyecto. Su visita nos despertó la curiosidad, y pusimos en marcha distintos experimentos. Aunque, a decir verdad, no en todos obtuvimos el resultado esperado, aunque lo disfrutamos. ¡Pero así se aprende!

Una vez finalizado nuestro proyecto, invitamos de nuevo a los mayores a celebrar la ikasjaia, y en esta ocasión, compartimos con ellos nuestros conocimientos. Disfrutamos mucho de estos encuentros porque cada vez nos sentimos más a gusto cuando somos protagonistas.
Para cerrar el proyecto, visitamos los invernaderos de Gore. Allí conocimos su trabajo. Pudimos ver y recolectar varias verduras. ¡¡¡Qué deliciosas acelgas nos llevamos a casa!!! En grupos,preparamos semilleros para plantar en los invernaderos. ¡Qué alegría cuando cogimos las fotos de las semillas sembradas y vimos que habían crecido!

¡Esperamos los proyectos del año que viene, deseosos de aprender!

## Handitzen, handitzen...

Urteak igaro dira Artxandapeko atea lehenengoz zeharkatu genuenetik. Batzuk begietan malkoak, besteek irribarrea ahoan eta gehienok ipurdietan pardelak genekartzan.

Goiz hartan urduritasunez betetako txirikiña jantzi eta lagun berriak egiteko asmoz etorri ginen ikastolara.

Bertan, pertsona erraldoi eta alai batzuk ere topatu genituen (irakasle eta laguntzaileak) eta haiekin batera bidaia zirraragarri batean murgildu ginen.

Gure azken lau urte hauetan hainbat egoera desberdinei aurre egin behar izan diegu, hala nola, asteetan etxean sartuta egon behar izanari; baina orduan ere, elkarren ondoan geundela somatu genuen. Zenbat denbora leiho eta terrazetan, zenbat bideodei pantaila aurrean, zenbat proiektu eta eskulan grabatu andereñori bidaltzeko, zenbat eta zenbat bizipen berri!

Udako oporrak amaitu eta aurpegiak berriro gertutik ikusteko unea heldu zenean gure barnean tximeletak dantzan jarri ziren. Hurrengo asteetan gel, musuko eta protokolo hitzak etengabe entzuten genituen



baina gu seguru sentitzen ginen; ikastolan geunden, gure etxe berde handian.
Bertan, elkar lagunduz aurrerapausu handiak eman ditugu: Txirikiña bakarrik jantzi eta lotzea lortu dugu, nagusi zein ikaskideenganako begirunezko jarrerak garatu ditugu, irakurtzen eta idazten ikasteko lehenengo urratsak eman ditugu, Cricktarrekin batera matematika mundu-

ra hurbildu gara, jolasorduan txikitxoak zaintzen ikasi dugu, xakeko bainila eta txokolatezko lurraldea ezagutu dugu… eta dagoeneko ez dugu pardelik erabiltzen!
Prest gaude elkarrekin Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara doan zubia zeharkatzeko eta irrikitan, bertan gure zain egongo diren beste pertsona erraldoi berriekin batera bidaia zirraragarri honetan jarraitzeko.

Han pasado varios años desde que traspasamos por primera vez la puerta de Artxandape. Unos/as con lágrimas en los ojos, otros/as con una sonrisa en la boca y la mayoría con pañal en el culete.

Aquella mañana nos enfundamos la bata y con los bolsillos llenos de nervios vinimos a la ikastola con intención de conocer nuevos/as amigos/as.

Aquí, nos encontramos a unas personas gigantes y alegres (andereños y auxiliares) y con ellas iniciamos un fascinante viaje.

Durante nuestros últimos cuatro años hemos tenido que hacer frente a situaciones nuevas, así como, la obligación de estar en casa durante varias semanas enteras, pero también entonces nos sentimos cerca. ¡Cuánto tiempo en las ventanas y terrazas!, ¡Cuántas videollamadas delante de la pantalla!, ¡Cuántos proyectos y manualidades grabadas para enviar a la andereño!, ¡Cuántas vivencias nuevas!

Terminaron las vacaciones estivales y en nuestras tripillas las mariposas empezaron a revolotear cuando supimos que se







acercaba el momento de volver a vernos de nuevo. Gel, mascarilla o protocolo eran palabras que oíamos continuamente pero nosotros/as nos sentíamos seguros; estábamos en la ikastola, en nuestra gran casa verde.

Aquí, ayudándonos y colaborando juntos, hemos dado grandes pasos hacía delante: Hemos conseguido vestir y atarnos la bata solos, hemos desarrollado actitudes de respeto hacía nuestros/as compañeros/as y mayores, hemos dado los primeros pasos en el proceso de lecto-escritura, con ayuda de los Cricks nos hemos acercado al mundo matemático, en el recreo hemos aprendido a cuidar a los/as pequeños/as, en las sesiones de ajedrez hemos conocido el territorio de vainilla y chocolate… y ¡Ya no usamos pañal!

Estamos preparados/as para pasar el puente que une Educación Infantil y Primaria y deseosos por conocer a las nuevas personas gigantes que nos esperarán al otro lado para continuar este fascinante viaje.



# Pen-pal English letters



*Gutun-trukea Londongo eskola batekin*

Urtero bezala, berriro ere hasi gara gutun-trukea egiten ingelesez hitz egiten den herrialde batekin. Aurten, gure Pen-pal friends-ak (gutun-bidezko lagunak) Londresen dagoen eskola bateko umeak izan dira, Bonneville Primary School hain zuzen ere. Artxandapeko ikasle ia guztiak animatu dira gutun bana idaztera, 4.urtekoetatik 5.mailara. Ikasle bakoitzari beste ikastetxeko lagun bat esleitu zaio, eta gutunen bidez jarri dira harremanetan.

Umeek gogo handiarekin idatzi dute. Nork pentsatuko zukeen umeek teknologia albo batera utzi eta ilusio hain handiarekin arituko zirela gutunak postaz jasotzeko!

Proiektu hau E-Twinning izenarekin ezagutzen da, eta plataforma bat eskaintzen du beste herrialde batzuetako ikastetxeetako hezkuntza-taldeekin komunikatzeko. Plataforma honen helburua elkarlanean aritzea, proiektuak garatzea, partekatzea eta kultura sustatzea da.

**Proiektuak ingelesez ere!**
Badira urteak, proiektuak jo ta ke ibili garela Artxandape ikastolan. Lan izugarria egiten dute tutoreek proiektuak aurrera eramaten. Baina, badakizue, ingeleseko arloan ere proiektuak lantzen direla eta proiektu interdisziplinarrak egiten direla? Interdisziplinar hau, irakasgai ezberdinetan, gai berdina irakastean datza.
5.mailan adibidez, zientzia arloan, gorputz aparatuak landu zirenean, tutoreekin aparatu batzuk ikasi zituzten euskeraz eta ingelesean, excretory system lantzea erabaki zen. Hori dela eta, ebaluazioa bi hizkuntzetan egin zen. Umeek zientzia bi hizkuntzetan ikasten dute hizkuntza aberasteko.

*Amigos por correspondencia en Londres*



Como hace años, hemos vuelto a intercambiar cartas con un país de habla inglesa. Este año, nuestros amigos por correspondencia han sido niños de una escuela en Londres, para ser exactos, la escuela Bonneville Primary School. A casi todos los alumnos de Artxandape se les anima a escribir una carta, desde los 4 años hasta 5º de primaria. A cada estudiante se le asigna un niño de la otra escuela y se contacta con ellos a través de cartas.

Los niños han escrito con gran entusiasmo. ¡Quién hubiera pensado que los niños dejarían de lado la tecnología y trabajarían con tanta ilusión para enviar y recibir cartas por correo!

Este proyecto se conoce como E-Twinning y proporciona una plataforma para comunicarse con grupos educativos de escuelas de otros países. El objetivo de esta plataforma es colaborar, desarrollar proyectos, compartir y promover la cultura.

# IKASLAGUN: LH 1. mailako neska-mutilek 5 urtekoei harrera egin diete, etapa berria ezagutzen joan daitezen

# IKASLAGUN: los chicos/as de 1º EP han recibido a sus compis de 5 años para que estos últimos vayan conociendo la nueva etapa



Ikasturte amaieran txango, ekitaldi, dantzaldi, udaleku, agurrak… baita hurrengo ikasturtera begira etorriko diren aldaketen zain ere.

Aldaketek batzuetan urduritasuna sortarazten digute, horregatik LH 1. mailako ikasleek HH 5 urteko umeei irailean, 1.mailan, zer aurkituko duten kontatzeko gutun batzuk idatzi dizkiete.

El final de curso siempre está repleto de excursiones, fiestas, bailes, colonias, despedidas…pero también con la mirada puesta en los cambios que vendrán de cara al próximo.

Los cambios a veces provocan nervios, por eso lel alumnado de 1º de EP ha escrito cartas a sus compañeros/as de 5 años de Educación infantil para contarles lo que se encontrarán en septiembre.

## Artxandapeko 2 bideo sarituak izan dira Jazotakoa jasoren aurtengo edizioan

Aurten, ekologia integrala eta etxe komunaren zaintza zainketa ardatz nagusitzat hartuta, Jazotakoa jaso ekimenaren V. edizioa ospatu da, honetan Artxandape Ikastolak aurkeztutako 2 lanek saria lortu dutelarik.

Alde batetik, LH 5. mailako ikasleen "Begiratuz maitatu, maitatuz zaindu" bideoak LH etapatik aurkeztutako bideo-irabazlea izan da. Epaimahaiak honen lanketa nabarmendu: antzezpena, ikasle guztien parte hartzea, portaera edo jarreren adierazpena edota jantziak, besteak beste.

Beste alde batetik, DBHko ikasleen "Tximinoaren istorioa" lanak ere alor arteko jakintza onena adierazten duen bideo onenaren aintzatespena eskuratu du. Kasu honetan, originaltasuna, mezuaren argitasuna eta erabilitako baliabide anitzak (marrazkia, rap musika eta istorioa-natura-historia uztartzea, esate baterako) izan dira bideo honen indarguneak.

Eskerrik asko eta zorionak parte hartzaile guztiei!!!

## Dos vídeos de Artxandape Ikastola han sido premiados en la edición de este año de Jazotakoa jaso

Con la ecología integral y el cuidado de la casa común como ejes principales, este año se ha celebrado la Vª edición del certamen de vídeos Jazotakoa jaso, siendo premiados en la misma 2 vídeos presentados por Artxandape Ikastola.

Por un lado, el trabajo «Begiratuz maitatu, maitatuz zaindu» de nuestro alumnado de 5º de EP ha sido reconocido como el mejor vídeo en la categoría de educación primaria. El jurado ha destacado su elaboración: la interpretación, la participación de todo el alumnado, la expresión de diferentes conductas y comportamientos o el vestuario, entre otros aspectos.

Por otro lado, el vídeo «Tximinoaren istorioa» de DBH ha sido reconocido por su contenido interdisciplinar. En este caso, las fortalezas del trabajo del alumnado de la ESO han sido la originalidad, la claridad en el mensaje y la variedad de recursos utilizados (dibujo, composición de música rap y confluir trama-naturaleza e historia).

¡¡¡Eskerrik asko y zorionak a todo el alumnado participante!!!

Begiratuz maitatu, maitatuz zaindu LH

Tximinoaren istorioa DBH

# Panderoaren bidez ikasleen konpetentzia musikala hobetzen

## Mejorando la competencia musical del alumnado mediante el pandero

Ikasturte honetan zehar musika instrumentuak berriro bueltatu dira klaseetara, baina, oraingoan gure instrumenturik zaharrenetakoari bidea eman diogu, panderoari. Hain gurea den panderoa musika klaseetan nola jo erakutsi dugu LH 5. mailatik DBH 3. mailara arte. Bost belaunaldi berri daude jada gurean instrumentu tradizionala jotzen dakitenak, eta zelan gainera! Biribilketa, fandango, arin-arin eta rantxera doinuak kolpatuz ikastolako korridoreak animatu dituzte, dantza gogoa sorraraziz.

Aukera ederra iruditu zaigu panderoa ikasleen artean musika-hezkuntzan txertatzea gure musika irakaslea Jokin San Jose izanda, horretan ibili izan delako azkenengo 11 urteetan zehar. Erritmo desberdinak identifikatzen dakizkite, eta soinu txikiarekin batera jotzeko gai ere badira. Trikiti hotsekin batera datozen jaiak animatzeko prest eta kapaz ditugu gure ikasleak. Mari jaiarekin batera ikusiko ditugu udan kaleak girotzen, ziur!



A lo largo de este curso los instrumentos han vuelto a las clases, pero esta vez hemos dado paso a uno de nuestros instrumentos más antiguos, el pandero. Hemos enseñado cómo tocar la pandereta, tan nuestra, en las clases de música desde 5º de primaria hasta 3º de la ESO. Ya hay cinco nuevas generaciones que saben tocar este instrumento tradicional ¡y cómo! Golpeando las melodías de biribilketa, fandango, arin-arin y ranchera animan a los pasillos de la ikastola, dándonos ganas de bailar.

Siendo nuestro profesor de música Jokin San José, quien ha sido profesor en escuelas de música en los últimos 11 años, nos ha parecido una buena oportunidad incorporar el pandero a la educación musical de nuestro alumnado.Saben identificar diferentes ritmos y son capaces de tocar con la música. Nuestro alumnado está preparado y capacitado para animar las fiestas que acompañan a los sonidos de la trikitixa.

¡Seguro que con la fiesta de MariJaia vamos a ver como se ambientan las calles este verano!

# Musikariak ikastetxeetan Hezkuntza Sailaren programak Jon Basaguren musikaria ekarri du Artxandapera



*Bigarren Hezkuntzako ikasleek musikarien lana, ibilbidea eta sortze prozesua hurbiletik ezagutu dituzte programa honen bidez ikastetxean bertan.*

Musikariak Ikastetxeetan DBH 3, DBH 4. eta Batxilergoko ikasleei zuzenduriko programa izan da eta honen bidez, musikariak gerturatu dituzte ikastetxe eta institutuetara. Esparruko profesionalek saioak eskaini dituzte ikastetxeetan, ikasleekin solasaldiak eduki dituzte, euren sortze prozesuaz eta ibilbideaz jardun dute eta tartean, hainbat kantu eskaini, zuzen-zuzenean.

90 minutu inguruko saioan, Artxandape Ikastolan Jon Basaguren musikariak bere sormen prozesua azaldu zien ikasleei. Lehen hitza edo lehen akordea sortzen duenetik, zuzenean edo disko batean plazaratu arte dagoen sormen prozesu osoa azaldu zien. Eta noski, hitzezko azalpenen artean, musikariak bere kantak jo zizkien zuzenean, ikastetxean bertan. Saio hartaz gozatu ahal izan zuten gure DBH 3.mailako ikasleek.

# El programa musikariak ikastetxeetan del Departamento de Educación trae a Artxandape al músico Jon Basaguren

*Alumnado de Secundaria ha conocido de cerca el trabajo, la trayectoria y el proceso creativo de los músicos y músicas a través de este proyecto.*

Musikariak ikastetxeetan es un programa dirigido al alumnado de Bachillerato y de 3º y 4º de ESO. Los músicos y músicas que han participado en el mismo han ofrecido sesiones en los centros escolares, han charlado con el alumnado sobre su proceso creativo-musical o su trayectoria profesional y, entre tanto, han ofrecido algunas de sus canciones en directo.

Durante la sesión de unos 90 minutos, el músico Jon Basaguren explicó al alumnado su proceso creativo. Todo el proceso que se produce desde que anota las primeras palabras o el primer acorde, hasta que lanza su trabajo en directo o en un disco. Y por supuesto, entre explicación y explicación, el músico interpretó algunas de sus canciones en directo.
Los alumnos de 3º de la ESO pudieron disfrutar de esta sesión.

Iturria: euskadi.eus (moldatua) // Fuente: euskadi.eus (adaptado)

# Gazteek ikasturtean landutako 200 proiektu egon dira ikusgai Elhuyar Zientzia Azokaren 10. edizioan

*Elhuyar Zientzia Azoka ekainaren 2tik 5era egin da Bilboko Areatzan. 200 proiektu egon dira ikusgai, eta, aurten, estreinakoz, sariak egunero banatu dituzte. Horien artean, Hondarpine proiektua, Olatz de la Piedra, Mireia Valle, Diego Oliveira, Endika Requena eta June Alda DBH 4.mailako ikasleena.*




Gazteek ikasturtean landutako 200 STEAM proiektu ikusteko aukera izan da Bilboko Areatzan, baita tailerrak, esperimentuak eta zientzia-ikuskizunak ere. Guztira 500 gaztek hartu dute parte aurtengo azokan. Azokak berak 10 urte bete ditu, eta Elhuyarren 50. urteurrenaren ospakizunen artean burutu da.

12-18 urte bitarteko gazteek ikasturtean egindako proiektu zientifikoak erakutsi dituzte bertan. Sari-banaketari dagokionez, aurten estreinakoz sariak egunero banatu dira, gazteei etxoletan bertan eman zaie zegokien saria. Horien artean, Hondarpine proiektua saritu dute, gure ikastolako DBH 4.mailako ikasle diren Olatz de la Piedra, Mireia Valle, Diego Oliveira, Endika Requena eta June Aldarena.

Elhuyar Zientzia Azokan, gazteek ez ezik, Euskal Herriko ikerketa-zentroek eta unibertsitateek ere parte hartu dute. Unibertsitateen proiektuak erakusteko, ikertzaile hauek egon dira Areatzan: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, CFM-Polymat, TECNALIA eta BC Materials.

# La 10ª edición de Elhuyar Zientzia Azoka ha mostrado 200 proyectos elaborados por jóvenes durante el curso

*Elhuyar Zientzia Azoka se ha celebrado del 2 al 5 de junio en el Arenal de Bilbao. Se han exhibido 200 proyectos y este año, por primera vez, se han entregado todos los días los premios. Entre los premiados ha estado el proyecto Hondarpine, de los alumnos de 4º de la ESO Olatz de la Piedra, Mireia Valle, Diego Oliveira, Endika Requena y June Alda.*

El Arenal bilbaíno ha acogido más de 200 proyectos STEAM realizados por jóvenes durante el curso, así como talleres, experimentos y espectáculos de ciencia. Un total de 500 jóvenes han participado en esta edición. La propia feria cumple 10 años y coincide con la celebración del 50 aniversario de Elhuyar.

Alumnos y alumnas de 12 a 18 años han expuesto proyectos científicos realizados durante el curso. Este año, y por primera vez, la entrega de premios ha sido diaria y ha tenido lugar en las mismas casetas. Entre ellos, se ha premiado el proyecto Hondarpine, de nuestros alumnos y alumnas de 4º de la ESO Olatz de la Piedra, Mireia Valle, Diego Oliveira, Endika Requena y June Alda.

En Zientzia Azoka, la feria de la ciencia de Elhuyar, participarán, además de los y las jóvenes participantes, centros de investigación y universidades del País Vasco. Además, cabe destacar la presencia en la propia feria de profesionales de la investigación, que han estado presentes para mostrar sus proyectos universitarios en el Arenal bilbaíno: UPV/EHU, Universidad de Deusto, Mondragon Unibertsitatea, CFM-Polymat, TECNALIA y BC Materials.

Iturria: zientzia-azoka.elhuyar.eus (moldatua) // Fuente: zientzia-azoka.elhuyar.eus (adaptado)

## Eskolaz kanpoko ekintzak bueltan izan ditugu ikasturte honetan

Pandemia garaia atzean utzita, ikasturte honetan eskolaz kanpoko ekintzak berriz martxan jartzeko aukera izan dugu. Ikastolako Zuzendaritzak Guraso Elkartearen Kultura- eta Kirol-Batzordeekin batera eskaintza anitza plazaratzea lortu du, Haur-, Lehen- eta Bigarren-Hezkuntzakoei zuzendutako mota guztietako ekintzekin. Familientzat prestatutako ekintzak ere antoltatu dituzte. Hona hemen laburpena zenbakietan:

## Este curso hemos podido retomar las actividades extraescolares

Con todas las medidas de seguridad, comenzamos a organizarlas y en octubre empezamos con todas las ganas. La dirección de Artxandape ikastola junto con la comisión de Cultura y la comisión de Deportes del AMPA ha logrado confeccionar una oferta de extraescolares variada y con actividades para todos los gustos dirigida a Infantil, Primaria y Secundaria. También han organizado actividades para las familias.

| **KULTURA 172** | **KIROLA 161** | **INGELESA 154** | **FAMILIAK 25** |
|---|---|---|---|
| Escuelab 18 | Kirol Hastapena 14 | Speaking 71 | Zumba 9 |
| Robotika 15 | Roller 13 | Ingelesa 67 | Pilates Familiak 7 |
| Xake 9 | Atletismo 14 | Ingelesa B2 16 | Euskal Dantzak |
| Eskulanak 21 | Saskibaloia 69 | | Familiak 9 |
| Margogintza 26 | Artxandape Kirol Kluba 37 | | |
| Zirkoa 35 | Taekwondo 14 | | |
| Dantza Modernoa 15 | | | |
| Euskal Dantzak 33 | | | |
| Musika 9 | | | |

# Eskola Egutegia 22/23

## 2022-23 ESKOLA EGUTEGIA

### HAUR-LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

artxandape ikastola

**2022**

**IRAILA**

| al | ar | az | og | or | la | ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | **4** |
| 5 | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | **18** |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | **25** |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | | |

**URRIA**

| al | ar | az | og | or | la | ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | **2** |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | **9** |
| 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | **16** |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | **23** |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | **30** |
| 31 | | | | | | |

**AZAROA**

| al | ar | az | og | or | la | ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1** | 2 | 3 | 4 | 5 | **6** |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | **13** |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | **20** |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | **27** |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

**ABENDUA**

| al | ar | az | og | or | la | ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | **4** |
| 5 | **6** | 7 | **8** | 9 | 10 | **11** |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | **18** |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | **24** | **25** |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | **31** | |

**2023**

**URTARRILA**

| al | ar | az | og | or | la | ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | **1** |
| 2 | 3 | 4 | 5 | **6** | 7 | **8** |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | **15** |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | **22** |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | **29** |
| 30 | 31 | | | | | |

**OTSAILA**

| al | ar | az | og | or | la | ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | **19** |
| 20 | **21** | 22 | 23 | 24 | 25 | **26** |
| 27 | 28 | | | | | |

**MARTXOA**

| al | ar | az | og | or | la | ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | **5** |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | **19** |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | **26** |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

**APIRILA**

| al | ar | az | og | or | la | ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | **2** |
| 3 | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** |
| **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | **16** |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | **23** |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | **30** |

**MAIATZA**

| al | ar | az | og | or | la | ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | **7** |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | **14** |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | **21** |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | **28** |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

**EKAINA**

| al | ar | az | og | or | la | ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | **4** |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | **18** |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | **25** |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | | |

| | | |
|---|---|---|
| (gris) | **ESKOLARIK GABEKO EGUNA** | DÍA NO LECTIVO |
| (marko) | **GOIZEKO JARDUNALDIA** | JORNADA DE MAÑANA |

| | HH | LH | DBH |
|---|---|---|---|
| EGUN | 175 | 175 | 175 |
| ORDU | 938,5 | 1028 | 1129,5 |

| | |
|---|---|
| **URRIAK 12 OCTUBRE** | **Jaia/ Fiesta** |
| **URRIAK 31-AZAROAK 1 NOVIEMBRE** | **Zubia/Puente Jaia/ Fiesta** |
| **ABENDUAK 6-8-9 DICIEMBRE** | **Jaia/ Fiesta Zubia/Puente Jaia/Fiesta** |
| **ABENDUAK 22-URTARRILAK 8** | **Gabonetako oporrak/Vacaciones de Navidad** |
| **OTSAILAK 20-21** | **Inauteriak/Carnavales** |
| **APIRILAK 3-16 ABRIL** | **Aste Santuko oporrak/Vacaciones de Semana Santa** |
| **MAIATZAK 1-MAYO** | **Jaia/Fiesta (Langileen eguna)** |
| **EKAINAK 21 JUNIO** | **Udako oporrak/Vacaciones de verano** |

## Eskolaz Kanpoko Ekintzak 22/23

*22/23 ikasturteko Eskolaz Kanpoko Ekintzetan izena emateko epea zabalik*

Gaurtik, ekainaren 13tik 30era arte, 2022/23ko Eskolaz Kanpoko jarduetan izena emateko epea ireki dugu.
Ondorengo estekan eskaintza kontsulta dezakezu.
Artxandape Ikastolako web orrian (gune pribatuan), Alexia plataforman sartu eta eman izena.
Hona hemen gida txiki bat, jarraibideekin.

*Abiertas las preinscripciones para las actividades extraescolares 22/23*

Desde el lunes 13 al 30 de junio, abierto el plazo de preinscripción para las actividades extraescolares del curso 2022/2023. En el siguiente enlace encontraréis la oferta.
Entra en la plataforma Alexia desde el área privada de la web de Artxandape Ikastola y realiza la prescripción.
En este enlace podéis encontrar una pequeña guía de cómo realizar este proceso.




## HH EKITALDIA: gure txikienek ikasturtea erritmo eta martxa biziz agurtu dute

Haur Hezkuntzako ekitaldia zuzenean ikusteko paradarik eduki ez baduzu, hona hemen gure txikienen 9 dantzak:




## LH JAIALDIA: musika, dantza eta giro onean itxi dugu ikasturtea

Musika, dantza eta giro ona izan dira protagonista LHko ia 320 ikasleak batu dituen jaialdiak.
Ikus ezazue hemen eskainitako abesti-sorta martxosoa:



# Zuen bizitzako beste etapa bat hasiko duzue eta zuen ametsak egia hihur daitezen opa dizuegu

Ikasle agurgarriak:

Beste urte batez agur esan behar dizuegu, gure artean  2008tik-2022 arte gurekin izan zarete eta elkarrekin bide luzea egin dugu.

Aurreko urteetan ez bezala, bi agur ekitaldi bizi izan dituzue: lehenengoa, ekainaren 15ean familiekin agurra ikastolako eleizan ospatu zenuten, bertan, ikasle, guraso eta zuzerndariaren esker hitzak entzuteko aukera izan zenuten . Bigarrena, ekainak 20an izan zen , Ikastolako ikasleen aurrean agur esan zenuten LH eta DBHko ikasleek bertsoak, dantzak eta abestiak eskaini zizkizueten.

Urte hauetan, leku eta egoera desberdinak ezagutu dituzue, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, edota DBHn egindako irteerak, udalekuak, hitzaldiak…. Ibilbide batzuk atseginak izan dira eta eroso sentitu dzarte; beste batzuk, berriz, deserosoagoak izan dira, baina beti ere zuen hezkuntza, adiskidetasuna, norberaren konfiantza, ingurugiroari errespetua eta hainbat baloreetan oinarritutako hezkuntza sustatzeko egin ditugu.
Hemendik aurrera, zuen bizitzako beste etapa bat hasiko duzue eta zuen ametsak egia hihur daitezen opa dizuegu.
Eskerrik asko gure artean izateagatik,

Zorte on!
Irakasleak



# Empezáis una nueva etapa y deseamos que se cumplan todos vuestros sueños

A nuestros/as alumnos/as::

Otro año más os tenemos que decir adiós, a los/las que habéis estado con nosotros/as desde el año  2008 hasta el 2022. Hemos recorrido juntos un largo viaje.

A diferencia de los años anteriores, habéis tenido dos celebraciones importantes: La primera, el 15 de junio con las familias en la Iglesia, donde escuchasteis las palabras de agradecimiento de las familias, alumnado y director del centro. La segunda tuvo lugar  el 20 de junio en el patio de la Ikastola delante del alumnado de Primaria y Secundaria, quienes os ofrecieron un recital de canto, danzas y versos.

Durante estos años, habéis conocido diferentes situaciones, realizado excursiones, udalekus, conferencias… en las diferentes etapas. Algunas han sido agradables y os habéis sentido cómodos; otras, por el contrario, han sido más incómodas, pero siempre las hemos llevado a cabo con el objetivo de fomentar valores importantes en la vida: vuestra educación, amistad, respeto por el medioambiente, confianza en uno /a mismo/a….

A partir de ahora, empezáis una nueva etapa y deseamos que se cumplan todos vuestros sueños.
Eskerrik asko por haber formado parte de nuestra familia.

Mucha suerte!
Irakasleak




Iritsi zaigu DBH 4.mailako ikasleoi hurrengora arte esateko momentua. Urte honetan gure bizitzako etaparik hunkigarrienetako bati agur esatea egokitu zaigu. Ikastola honetan hazten eta heltzen, akatsak egiten eta horietatik ikasten ikusi gaituzte. Irakasle ugari izan ditugu eta klaseko edukiez gain, bizitzarako ezinbestekoak diren lezioak irakatsi dizkigute. Gure klasekideak anai-arreba bilakatu dira eta haiekin batera familia handi bat sortu dugu.

Ez zaituztegu inoiz ahaztuko, hau ez delako agur bat, gero arte bat baizik.

*Martin García Villanueva*

Al alumnado de 4º de la ESO nos ha llegado el momento de decir hasta pronto. Este año nos toca despedirnos de una de las etapas más emotivas de nuestra vida. En esta ikastola nos han visto crecer y madurar, cometer errores y aprender de ellos. Hemos tenido muchos profesores y profesoras que además de los contenidos de clase nos han enseñado las lecciones imprescindibles para la vida. Nuestros/as compañeros/as de clase se han convertido en hermanos/as y con ellos/ellas hemos creado una gran familia.

No os olvidaremos nunca, porque esto no es un adiós sino un hasta luego.

*Martin García Villanueva*